

**ERABAKIA, 2017ko EKAINAREN 2koa, UPV/EHUko IRAKASLE-  
IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko  
IRAKASLEEN ORDEZKOAK EGITEKO ZERRENDETAN KIDE GEHIAGO  
SARTZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAN ONARTU ETA EZ ONARTUEN BEHIN  
BETIKO ZERRENDA ONARTZEKO DENA.**

**EGITEZKO AURREKARIAK**

**Lehenengoa.** 2017ko martxoaren 27ko erabakiaren bitartez, UPV/EHUko irakasleen ordezkooak egiteko zerrendetan kide gehiago sartzeko deialdi publikoa egin zen.

**Bigarrena.-** Lehiaketan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea 2017ko apirilaren 25ean amaitu zen eta 2017ko maiatzaren 16ko erabakiaren bidez onartu eta ez onartuen behin-behineko zerrenda eman zen argitara. Halaber, erreklamazioak aurkezteko eta errakuntzak zuzentzeko 2017ko maiatzaren 30eko bitarteko epea zabaldu zen.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa.-** Honako hauek dira aplikagarri kasu honetan: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea (urriaren 2ko EAO); 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendu-arloak eta egitura eta eginkizunen eskuordetzea zehazten dituen Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko EHAA); 2011ko martxoaren 11ko UPV/EHU irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen ebazpena, irakasleen ordezkooak egiteko izengaien zerrendak gestionatzeko arautegia onartzen dena (2011ko martxoaren 25eko EHAA); 2017ko martxoaren 27ko erabakia, deialdia egin zuena, eta aplikatu beharreko gainerako arau orokorrak.

**Bigarrena.-** UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eginkizunen eskuordetzan, erabaki hau emateko, Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendu-arloak eta egitura eta eginkizunen eskuordetzea zehazten dituen Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren babesean.

**Hirugarrena.-** 2017ko martxoaren 27ko erabakiaren bidez deialdi publikoa egin zen UPV/EHUko irakasleen ordezkooak egiteko zerrendetan kide gehiago sartzeko. Erabaki horretan jasota dago errakuntzak zuzentzeko eta behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaiturik, zerrenda hori behin betiko bihurtuko dela. Bestalde, hilabeteko epean horren aurka egiteko berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela ere xedatzen du edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian hilabete biko epean.

Hori guztia kontuan hartuta, eta nire eskumenak erabiliz, honakoa:

**ERABAKI DUT**

**Lehenengoa.-** UPV/EHUko irakasleen ordezkioak egiteko zerrendetan kide gehiago sartzeko lehiaketa publikoan onartu eta ez onartuen behin betiko zerrenda onartzea (lehiaketa 2017ko martxoaren 27ko erabakiaren bidez deitu zen).

**Bigarrena.-** Erabaki hau argitaratzea Deialdi eta Lehiaketa Ataleko eta campusetako errektoreordetzeko iragarki-oholetan, eta unibertsitateko webgunean.

## **ERREKURTSOAK**

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, erabaki hau argitaratzen denetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian hilabete biko epean, erabaki hau argitaratzen denetik hasita (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa; 123. artikulua eta hurrengoak).

Leioan, 2017ko ekainaren 2an.

ERREKTOREA

Eginkizunak eskuordetuta (errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, 2017/02/03ko EHAA)  
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Izptua.: Inmaculada Guericagoitia Marina